

Eskerrik asko harpidedun guztioi

Rikardo Arregi Kazetaritza Sariak 30 urte bete ditu 2018an, eta, urtemuga berezia ospatzeko, euskarazko kazetaritzan mugarri izan diren proiektuak saritu ditu; hamar, guztira. Mugarri horietako bat izan da *Elhuyar* aldizkaria, "euskara zientziara begira jarri eta zientziaren berri euskaraz ematea ahalbidetu duen hedabidea delako".

Izugarritzko ohorea da guretzat euskarazko kazetaritzaren hamar mugarrietako bat izatea, eta, gainera, halako hedabide historikoen artean ospatzea.

Eskerrik asko irakurleoi, urte hauetan guztietan aldizkaria babestu eta aberastu duzuelako! Egin dezagun bide luzea elkarrekin.





Euskarazko kazetaritzaren hamar mugarrirako ordezkariak, ezker-eskuin: Eibar.org ataria, Goiena, EITB taldea, Euskal Irratiak, EHUKo Kazetaritza Fakultatea, Ttipi-Ttapa, *Elhuyar* aldizkaria, *Zeruko Argia/Argia*, *Anaitasuna* aldizkaria eta *Euskaldunon Egunkaria/Berria*.



Elhuyar aldizkariko lankideak, lankide-ohiak, zuzendari-ohiak eta kolaboratzaileak, aitortza ospatzen.